

ITER HISTORIA

*Gure esku  
utzi ezazu  
zure bidaiak*

**MUNDUA  
EZAGUTU  
HISTORIAREN  
BARNETIK!**

**HISTORIA  
EZAGUTZEKO ETA  
BIDAIATZEKO  
METODO  
IRAULTZAILEA**

**HISTORIAREN  
PERTSONAI  
ESANGURATSUENAK  
EGINDAKO BIDAIAK  
BER-BIZI**



## **ITER HISTORIA**

### ***BIDAIATU ZURE GUSTOKO PERTSONAI HISTORIKOEN AZALEAN***

ITER enpresaren helburua historiaren zale amorratuei edo mundu honetan sartu nahi duten pertsoneri laguntzea da, historia bidean zehar ezagutzeko. Historian izugarrizko garrantzia egin zituzten ibilbide zoragarriak eskaintzen ditugu, historia barrutik ikasteko. Zehazki , bost ibilbide desberdin. Ibilbide horiek munduko hainbat leku zeharkatzen dituzte, historiara hurbilduko zaituen gidari baten laguntzarekin. Era berean, beste pertsona batzuekin ahaztezinak diren balioak eta esperientziak partekatzeko aukera ematen dizugu. Enpresa proiektuaren gain, baita gizartea humanizatzea bilatzen dugu, historia bizi izan zutenen larruazalean modu ludikoan ikasiz.

Gainera, alternatiba ekonomiko bat eskaintzen dugu; izan ere, ibilbide osoa itxita dago, eta zure kontura antolatzea baino askoz ere merkeagoa da. Horrenbestez, gure bidaiak prezio-tarte desberdinetan banatuta daude, segmentu guztirentzat eskuragarriak izateko. Bestalde, bidaiak, pertsonaia historiko batek egindako ibilbidean oinarritzearen originaltasuna eskaintzen dugu. Beraz, lekua ez dugu aukeratzen eta batzuetan gatazkatsua izan daiteke eta segurtasuna eskaintzen dugu bidaiak lasai baterako. Beraz, konpontzen ari garen arazoa edo beharra: historia hurbiltzea, bidaiak erraz eta erabat antolatuen bidez, eta ez dadila buruhauste bat izan bidaiak horiek egin ahal izatea.

Gainera, ideia bururatu zitzaizgun; izan ere, enpresako bost kideok bidaiatzea maite dugu, eta kultura berriak ezagutzea maite dugu. Bestalde, publiko mota guztiei zuzenduta dagoela argi uztea garrantzitsua dela uste dugu, baldin eta historiarekiko nolabaiteko interesa badute eta zerbait berria ikasi nahi badute. Horregatik, zientziaren eta erlijioaren arteko historiara bideratutako ibilbideak eskainiko ditugu. Ideia berritzailea iruditzen zaigu, dena antolatuta dagoelako eta zure kontura lan egiteko ezer ez duzulako, bidaiak bakarrik prestatzea baino askoz erosoagoa da. Iter historia latinez historiara bidaiatzea esan nahi du, historiari dagokion hizkuntza bat, horregatik aukeratu dugu enpresaren izenarako.

Interesgarria izan daitekeela uste dugu, gizartera aberastasun handia ekar dezakeelako, ikuspegi ludikoarekin eta ez akademikoarekin gehiago landu beharko litzatekeen gaia dela diozunean.